

Innobideak Kudeabide Programa

<p><b>Helburua</b> (2. art.)</p>	<p>Kudeaketa hobetzeko proiektuei laguntzea du xedea, proiektuok Kudeaketa Aurreratuko Ereduarekin bat badatoz eta lehiakortasuna hobetzeko balio badute. Eusko Jaurlaritzak, SPRIK eta EAeko hiru aldundiek kudeatzen duten plan bat da.</p>
<p><b>Erakunde Onuradunak</b> (3. art.)</p>	<p>Bizkaiko 5 eta 49 langile arteko enpresak, jarduera hauek egiten badituzte: erauzketako, eraldaketako eta ekoizpeneko industria-jarduerak; ekoizpen-prozesuari lotutako zerbitzu teknikoak, eta informazioaren gizartearen eta komunikazioen arloko jarduerak. Baita ere, jarduera Programa arautzen duen Foru Dekretuaren I. eranskinean sartu diren EJSN 2009ko sailkapeneko epigrafe batean kokatzen bada.</p> <p>Enpresa onuradunek honako baldintza hauek ere bete beharko dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sozietatearen egoitza eta zerga-egoitza Bizkaian izatea.</li> <li>• Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.</li> <li>• Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana.</li> </ul>
<p><b>Diruz lagunduko den egitatea</b> (4. art.)</p>	<p>Kudeaketa Aurreratuko Hasierako Kontrasteari buruzko Txostenari erantzuten dioten finkatze-proiektuak (2B) diruz lagunduko dira, baldin eta proiektuotan aplikatu eta ezarriko diren metodologiek eta tresnek lehiakorrago izateko aukera ematen badiote enpresari, Kudeaketa Aurreratuko Ereduarekin bat, eta dekretu arautzailean ezarritako puntuazio-irizpideak gainditzen badituzte.</p>
<p><b>Diruz lagundu daitezkeen gastuak</b> (5. art.)</p>	<p>Kanpoko aholkularitza-enpresekin kontratatzea hartuko da diruz lagundu daitezkeen gastutzat, baldin eta gastuon xedea kudeaketa hobetzeko aurkeztu den proiektuaren barruko jarduketak egitea bada.</p>
<p><b>Laguntzen zenbatekoa</b> (6. art.)</p>	<p>Laguntza izango da, hain zuzen ere, proiektuak dituen diruz laguntzeko gastuen % 60, baina gehienez ere 6.000 € emango zaizkio enpresa bakoitzari.</p>
<p><b>Araudia eta diru-laguntzak emateko araubidea</b></p>	<p>64/2017 Foru Dekretua, maiatzaren 16koa (BAO 94zk. 2017ko maiatzaren 18koa). Diru-laguntzak norgehiagokarik gabeko araubidean emango dira.</p>
<p><b>Epeak</b> (7. eta 8. art.)</p>	<p><b>Diru-laguntza jasotzen duten proiektuak:</b> eskabidea aurkeztu ostean eta 2017eko abenduaren 31ra bitartean hasi beharko dira eta 2018ko urriaren 1a baino lehen bukatu.</p> <p><b>Eskabideak aurkezteko epea:</b> 2017ko maiatzaren 22tik irailaren 29ko 13:30etara arte, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez (<a href="http://www.bizkaia.net/sustapena-BulegoBirtuala">www.bizkaia.net/sustapena-BulegoBirtuala</a>). Horretarako, enpresak sinadura elektronikoa (Izenpe, ONA, NAN elektronikoa, FEA,...) eduki behar du edo, bestela, Bizkaibai zerbitzuan izena emanda egon (Orueta Apezpikua kaleko 6an dauden bulegoetan eska daiteke txartela). B@k identifikazio-sistema (Bizkaiko katastro web-en bitartez emandakoa) ere erabiltzea izango duzu.</p>